



# jakintza ikastola

Primeran pasa genuen!

Ikastolako kamiseten kolore urdinak, itsasoa balitz bezala, Ordiziako plaza estali zuen. Halako batean, olatu bareak suziaren danbatekoarekin batera eztanda egin zuen; eta, dantza, abesti, algara eta besarkadak ez ziren soberan gure Ikastolaren Egunean. Bigarren batxilergoa amaitu berri duen Haritz Irastorzak mikrofono aurrean Ikastolaren Egunari hasierako hitzak eskaini zizkion, eta, jarraian, HH2 eta DBHO2ko ikasleek suziariak aireratu zituzten. Hasiera eta amaiera bat, Ikastola bat!



Haur Hezkuntzako txikiek dantzaldia eskaini ziguten herriko Plaza Nagusian; Lehen Hezkuntzakoek, berriz, herriko Alde Zaharra, Arboleda, Barandiaran plaza eta Frontoia erronka eta jolasez alaitu zituzten. Bigarren Hezkuntzakoek haurrentzako tailerrak antolatu zituzten Plaza Nagusian, eta irakasleei astindu galanta eman zieten herri kirol eta erronketan.

Bertan izan zineten guztioi, ikasle, guraso eta irakasle, harro eta ahots betez, mila esker gure ikastolaren parte izateagatik. Guztion artean bizia ematen diogu egungo ikastolari, eta gaur inoiz baino gehiago bat eginez indartzen garela erakutsi dugu.

Jarrai dezala olatu urdinak mugimenduan! Jarrai dezala gelditu gabe!

GU IKASTOLA

